

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Osteguna, 2010eko azaroaren 11. VIII. urtea. 2.121. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Leire Olaberria Txirrindularia

«500 metroko probaren aurreko minutuak oso latzak izan ziren»

Europako omnium probako txapelarekin itzulita Londresko Olinpiar Jokoetara joateko lehen urrats garrantzitsua eman du ikaztegiarrak

Txirrindularia orain atsedean hartzen ari da, baina segituan joango da Balearretara abenduaren hasieran Australian izango den Munduko Kopako lehen proba prestatzeko **3**


Oinkari dantza taldearen 35 urteak ospatzeko ekitaldiak

Azaroaren 20an izango da urtebetzea; ikuskizun berria 21ean eskainiko dute **4**

Paulo Iztueta
Idazlea

«Nire helburua da guk pairatu dugun hezkuntza eredu hori, ondorengoek ez jasatea»

Elkarrizketa **6-7**



1.TERRADILLOS

→ **Lore-eskaintza Aranburun.** Tolosako Udalak Memoriaren Egunarekin bat eginez lore-eskaintza burutu du Aranburu Jauregiko Lorategietan. Era berean, Ahaztuak Elkarteak antolatuta mahai-ingurua izan da Lizardin Martxelo Otamendi, Jozean Agirre eta Martxelo Alvarezekin. **2**

**URREA
EROSTEN
DUT**

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZIARIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea

Loreak eskainiz oroitu dituzte

Hainbat herritar eta Udaleko ordezkariak elkartu ziren atzo eguerdian egin zuten ekitaldian

Iñigo Terradillos Tolosa

Memoriaren Egunarekin bat eginenez, Tolosako Udalak ekitaldia burutu zuen atzo Aranburu Jauregiko Lorategietan, Bizitzaren Zuhaitza izenekoaren alboan. Bertan izan ziren EAJ, PSE-EE, PP eta Hamaikabat alderdietako Udaleko ordezkariak eta ekimenean parte hartu nahi izan zuten herritarrak. Horien artean, ETAK 2000. urteko uztailaren 29an hil zuten Juan Mari Jauregiren alar-gunaren anaia eta ETAK 1997ko otsailaren 11n hil zuten Patxi Arratibel enpresari tolosarraren anaia.

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak gerturatu zirenei eskerrak eman zizkien parte hartzeagatik, eta atzoko eguna eurentzat ez ezik «guztiontzat oso berezia»

dela esan zuen: «Zuetako bakoitzak motibazio edo arrazoi bat izango du gaurko eguna sentitze-ko, jaso ezazue besarkada bat», adierazi zien. Halaber, Udaltzatzak EB-Aralarren abstentzioarekin onartu berri duen Memoriaren Eguneko mozioa ere irakurri zuen Tolosako alkateak.

Lore-eskaintza eginez amaitu zuten eguerdian egin zuten ekitaldia. Hala ere, egun osoan izan zen horretarako aukera, Aranburu Jauregiko Lorategietan espresuki jarri zituzten loreak baliatuz.

Mahai-ingurua Ahaztuak elkartearen eskutik

Ez zen izan hori, ordea, Tolosan atzo biktimei eskainitako ekitaldi bakarra. Ahaztuak elkartearen ustez, «Tolosako Udalak antolatuturiko ekitaldietan ez dira biktimaguztiak kontuan hartzen», eta hori dela eta, mahai-ingurua egin zuten atzo Lizardi elkartean *Hacer memoria, hacer justicia* izenburupean, Martxelo Otamendi, Joxean Agirre eta Martxelo Alvarrezekin.



Udaleko ordezkariak eta hainbat herritarrek hartu zuten parte ekitaldian euriari aurre eginez. IÑIGO TERRADILLOS



2011 agenda
Dagoeneko salgai!



12€

- Liburu dendetan
- www.euskalherriokoplaza.com

Ezaugarriak:

- Hiru urtetako egutegia
- Intereseko telefonoak
- Euskal Herriko errepide mapa
- Aste osoa ikusgai

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Jaunarenak Asperekin hiru urteko kontratua sinatu du

Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola herritarrekin batera ariko da hemendik aurrera

Eredakzioa Leitza

Abel Barriola, Oinatz Bengoetxea eta Asier Olaizola herritarrekin batera ariko da Jon Jaunarena (1992, Leitza), Asperekin kontra-

tua sinatu ondoren. Atzo hitzartu zuten akordioa bi aldeek eta leitzarrak abenduaren 29an jokatu-ko du debut partida Tolosako Beotibar pilotalekuan.

Eibarko Aspek bi pilotari gazteri profesionaletan jokatzeko aukera eskaini die atzo, hiruna urteko kontratuarekin. Bata Jon Jaunarena aurrelaria da eta bestea, Jose Javier Zabaleta Lasa. Etxarrenen jaio zen Zabaleta eta aita leitzarra zuen. Atzelari bezala jokatu du pilotari gazteak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ Laburrak

Tolosa Kantari kantu jirako entsegua

KULTURA › Hilabete honetako Tolosa Kantari kantu jira hilaren 27an izango da. Aurretik, ordea, bi entsegu egingo dituzte. Lehen gaur izango da, eta bigarrena hilaren 25ean. Biak Musika Eskolan egingo dituzte, 20:00etatik aurrera. Tolosa Kantariko ordezkariak esan dutenez, euskal abestiak kantatu eta ikasi nahi duten guztiak daude gonbidatuta bertan parte hartzera.

Minbiziaren aurka hitzaldia emango dute

GIZARTEA › Minbiziaren aurka elkarteak antolatuta, minbiziaren fase ezberdinetan jarraitu beharreko elikaduraz hitzaldia izango da hilaren 23an. Minbiziaren aurka elkarteak Emeterio Arresen duen egoitzan izango da, 12:00etatik 13:30era. Tailerra doako da eta izena eman beharko da parte hartzeko, plaza mugatuak baitaude. 943 45 77 22 telefono zenbakira deitu beharko da lekua hartzeko.

'Oinazez' eta 'Segi jotzen' ikuskizunetarako sarrerak

KULTURA › Alurr dantza taldeak abenduaren 10ean Leidor aretoan eskainiko duen *Oinazez* ikuskizunerako eta Poxpolo eta Konpainiak Leidor aretoan abenduaren 26an eskainiko duen *Segi jotzen* emanaldirako txartelak salgai jarri dituzte. Leidorreko leihatilan (zine ordu-egian) eskuratu ahaliko dira, eta baita Kutxako kanaletan (Servikutxa, Telekutxa eta www.kutxa.net) ere. Alurr dantza taldearen emanaldirako sarreragatik 10 euro ordaindu beharko dira, eta Poxpolo eta Konpainiaren saiorako, berriz 5 euro.

Musika Bandaren emanaldia, Zerkausion

KULTURA › Tolosako Musika Bandak kontzertua emango du etzi, hilaren 13an, Tafallako Bandarekin batera. Emanaldia Zerkausion izango da 19:00etatik aurrera. Ondorengo lanekin osatuko dute egitaraua: *Berrotarrak* (Joaquin Ortega), *Concierto for trumpet* (Alexander Arutunian), *Igarondo* (Conde de Torre Muzquiz), *Black, el payaso* (Pablo Sorozabal) eta *Highlights from hook* (John Willimas).

Leire Olaberria ◊ Txirrindularia

Asteburuan Europako omnium probako lehen txapelduna bilakatu zen Olaberria, Londresko Olinpiar Jokoetara joateko lehen urrats garrantzitsua eginez.

«Gakoa proba guztietan bost lehenengoetan egotea da»

Inmanol Garcia Ikaztegieta

Europako txapela jantzi ondoren, Leire Olaberria (Ikaztegieta, 1977) txirrindularia atsedean hartzen ari da, baina aurki Balearretara joango da entrenatzera, abenduaren hasieran Australian jokatu den Munduko Koparen lehenengo proba prestatu asmoz.

Zer sentsazioekin itzuli zara etxera txapeldun izan ondoren?

Egindakoarekin oso gustura. Joan aurretik banekien ez nindoala forma onenean. Baina lehia kor aurkitzen zaren txapelketa batean, dituzun gabeziekin jokatzeko duzu eta oso pozik nago emaitzarekin. Egindako denborak oso onak izan dira. Asko sufritutako garaipena izan da, baina normalean asko sufriarazten zaituzten garaipenek zapore hobea goazten dizute.

Europako lehenengo txapelduna zara omniumean. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Azken finean aldaketa nahiko berezia eman da gure kirolean. Olinpiar Jokoak nahiko gertu daude eta programa olinpiarra aldatu egin digute. Londresen badakigu ziur proba hori egongo dela, baina Riora begira ez dakigu zer gertatuko den. Historiarako geldituko diren kontuetan, bizikleta gainean zaudenean ez duzu horretan pentsatzen. Bizikleta uzten dudanean, agian grazia egingo dit, baina orain ez diot balore gehiegi ematen.

Zer emaitza lortu zenituen omniumeko sei probetan?

Itzulian hirugarren bukatu nuen, puntuazioan laugarren, kanporaketan bosgarren, jazarpenean bigarren, scratchean zortzigarren eta 500 metroan laugarren.

Ez zenuen, beraz, lehen posturik lortu.

Ez da hain garrantzizkoa lehenengo postua lortzea. Nik uste dut sekretua izan daitekeela proba guztietan aurreneko postue-

tan egotea. Hori izan daiteke probaren gakoa, aurreneko bost postuetan bazaudete proba guztietan, ziur dominak lortzeko borrokan zaudela.

Noiz jakin zenuen txapelketa eskura zenuela?

Puntuazio probaren ondoren lehen postuan nengo. Gero laugarren proba amaitzean, bigarrenari abantaila handia ateratzen nion, hamar edo hamaika puntu. Gero scratcha pixka bat nahastu zen eta azken probari, 500 metrokoa, bigarrenari bi postuko abantaila ateratzen niola ekin nion. Azkenean beste postu bat gehiago sartu nion.

Probaren batean ez zinen konforme gelditu?

Karrera amaitzean, batzuetan ez zaude konforme egindakoarekin, baina lasterketa ez delako eman zuek pentsatzen zenuen bezala. Scratch proba hasterakoan, nahiz eta nik bigarrenari abantaila handia eraman, bigarrenetik zortzigarrenera borroka handia zegoen. Nik karreraren garbi izan nuen besteek borrokatu behar zutela, nik neurea egin baineukan. Egindako zenbait gauza hobetu daitezke, baina egia da gaur egun egiten ditudan akatsak minimoak direla. Gauzak egiten jakinez gero, taldekako probetara ateratzea errezagoa izaten da, batez ere buruaren aldetik.

Proba batzuk badaude bakarka egiten dituzunak erlojuaren aurka eta besteak taldean. Azken horietan bakaitzaren formaz gain, beste faktore batzuk ere badaude.

Urteak pasatu ahala, eta eskarmentua hartu ahala, gero eta gehiago dakizu. Egia da batez ere puntuazioan jendea urduri zegoela eta mugimendu arraroak izan zirela. Bi alditan erortzeko zorian egon nintzen eta oraindik ez dakit nola libratu nintzen. Taldekako probek hori daukate, edozein gauza gertatu daitekeela. Eta azkenaldian badirudi jendeak nahi



I. GARCIA

duela nik behar baino ardura gehiago hartzea. Nik hartzen ditut behar diren unean. Nik uste dut sasoi onean bazaudete, erlojuaren aurka denbora onak egiten dituzula, eta besteetan postuak defendatzen jakin behar duzula. Karrera irabazi nahi baduzu asko arriskatu behar duzu, baina kasu

«500 metroko probaren aurreko minutuak oso latzak izan ziren»

«Hurrengo helburua Melbournen jokatu den Munduko Kopako lehen proba izango da»

hauetan hobeto da bigarren gelditzea hainbeste arriskatu gabe.

Mundu mailako probak hasterakoan, beste aurkari batzuk izango dira. Tropelaren maila igotzen denetan, taldekako probak gogorragoak egiten dira. Karrerak gogo-

rrak ez direnean, edozein sartu daiteke esprintean. Karrerak gogorak direnean indartsuenak bakarrik iristen dira aurrera, postu on bat egiteko. Eta nik uste dut hori positiboa dela niretzako.

Txapelketaren memento onena?

Nahiz laugarren proba bukatu zenean aukera asko nituen txapelketa irabazteko, amaitu arte ez zait gustatzen horretan pentsatzea. Nire lanean murgiltzen naiz. 500 metroko probaren aurreko minutuak oso latzak izan ziren. Lehendabiziko aldia zen txapelketa garrantzitsu bat irabazteko aukera nuela. 500ren ostean memento horietako tentsio guztia ateratzen da. Jende asko izan da lanean eta memento horiek beraien elkarbanatu daitezkeenean paregabeak dira. Orain horren buelta etorri da: neke guztia ateratzen da eta etxean gaude lehenbailehen errekuaratzeko asmoz. **Psikologikoki ere prestaketaren bat burutzen duzu?** Horretarako badugu laguntza, memento horiei aurre egiteko

errekurtsioak ematen saiatzen dira. Horrelako mementoak bizitzeko zozaren neurrian, gerorako horrelako esperientzia hori gelditzen da. Gustura aurkitu naiz buruaren aldetik. Badakit etorkizunean emaitza on gehiago emango direla, baina baita ere hainbeste proba izatean izango direla nahigabeak eta memento horiek ahal den ondoan eramateko prestatzen saiatuko naiz.

Hurrengo proba noiz izango duzu?

Orain hamahiru egun izango naiz etxean eta gero Palmara goaz eta handik Melbournera joango gara. Lehendabiziko Munduko Kopako proba Australian izango da, abenduaren lehenengo astean. Hurrengo helburua hori da.

Palma gain, Donostian ere entrenamenduak egiten dituzu?

Donostian ere entrenatzen dugu, baina normalean Palmara joaten naizenean astintzen ditut hankak eta etxera etortzen naizenean errekuaratzeko izaten da. Esan daiteke entrenamenduko lekua Palma dela.

<p>SOLAGÜEN 2004. urteko ERRESERBAko ardoa 6 botilako kutxa 60 €</p> <p>12 botilako kutxa 72 €</p> <p>SOLAGÜEN 2005. urteko ardo ONDUA</p>	<p>REMELLURI 2005. urteko ERRESERBAko ardoa</p> <p>3 botilako kutxa 40 €</p> <p>6 botilako kutxa 80 €</p>	<p>BRUT NATURE MAINEGRA</p> <p>VINO DE BARRIO Bordeleko ardoak Luzen berrin Hogazketa Bordeleko ardoak Bordeleko ardoak</p> <p>6 botilako kutxa 39 €</p>	
<p>Erosi berriaren GABONETAKO ESKAINTZAN EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK</p> <p>azaroaren 30a arte!</p> <p>Osatu zure saskiala!</p> <p>949 30 43 45 Bilaketa eta zerbitzua Bilaketa gertatu duon</p>			<p>Alfar La Maja</p> <p>OLIVA OLIV SIKIRINA ETXEA</p> <p>6 botilako kutxa 36 €</p>

Villabonako Oinkari dantza taldeak, hilaren 20ean 35 urte beteko ditu. Euskal dantzak dantzatu eta erakustez arduratu izan dira urte guzti hauetan. Ekitaldi ugari prestatu dituzte urteurrena ospatzeko.

Oinkari, 35 urte dantzan

Eneritz Maiz Villabona

Villabonako Oinkari dantza taldeak, 35 urte beteko ditu hilaren 20ean. Harrez gero, herriko neska-mutil asko pasa dira bertatik. Baita inguruko herrietakoak ere.

Urteurrena ospatu nahi izan dute baina «ospakizun xumea» egin nahi izan dutela adierazi du Eneko Arteaga taldeko arduradunak. Ekitaldiak asteburu batean egingo dituzte eta erakusketa aste osoan zehar izango da. Guztia doan da, bazkarirako txartela izan ezik. 35 euro ordaindu behar da menuaz gain autobusa ere sartzen da. Txartelak ohiko lekuetan daude salgai eta azken eguna hilaren 17a izango da.

Hurrengo asteburuan, besteak beste, kantaldia, dantzaldia eta bazkaria izango dira. Igandean Malkar plazan eskainiko dute ikuskizun berria, *Dantza zak plazan*, non taldeko 40 mutilek dantzatzuko duten. Jarraian, sagardotegira joango dira bazkaltzera.



Oinkari dantza taldeko dantzariak, igandetik aurrera erakusketa ikusgai egongo den aljibearen dantzan. HITZA

Bertan Oinkariko «familia» elkartu nahi dute eta «dantzari ohiak eta oraingoak» animatu nahi dituzte. Autobusa, 13:30ean Olaederratik aterako da.

Eneko Arteaga • Oinkari dantza taldeko arduraduna

«Taldea herrikoi bezala sortu zen eta horrela jarraitzen du»

↓ 35. urteurreneko ekitaldiak

ERAKUSKETA

■ **Hilak 14 etik 21era.** Oinkariko hiru belaunaldien argazki zahar eta berrien erakusketa Aljibe aretoan egongo da.

■ **Ordutegia.** Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 21:00etara eta larunbatean eta igandean 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

EKITALDIAK

■ **Hilak 19, ostirala.** 22:30ean, Iñar eta Leireren Kantaldia izango da Gurea Zinemaren, doan.

■ Hilak 20, larunbata.

22:30ean Dantza emanaldia izango da Gurea Zinemaren. Asuriasko Lugones herriko *La Sindrina* dantza taldea izango da ikusgai eta doan izango da.

■ **Hilak 21, igandea.** 12:00etan, dantza emanaldia egingo dute Malkar plazan. Oinkari dantza taldearen *Dantza zak plazan* mutilen ikuskizun berria. Euria egingo balu, Bearzana pilotalekuan izango da. 14:00etan, dantzari eta dantzari ohien bazkaria egingo dute Aburuza Sagardotegian. Bazkal ondoren, erromeria Kantuki taldearen eskutik.

E. Maiz Villabona

Eneko Arteaga billabonarra Oinkari dantza taldeko arduraduna da. Dantza Taldeak 35 urte betetzen dituen honetan berarekin hitz egin dugu.

Nola sortu zen Dantza Taldea?

1975. urtean lagun talde bat elkartu zen. Satorra lokalean elkartzen ziren eta proiektuari forma ematen hasi ziren.

Urte guzti hauetan zein ibilbide izan duzue?

Franko garaian herri mugimendua bultzatu asmoz sortu zuten. Era berean eta egoerari aurre egi-

teko, euskal kultura bultzatu nahi izan zuten. Talde herrikoi bezala izaten jarraitzen du. Edozeinek parte hartu dezake eta baita inguruko herrietakoak ere. Eta talde bezala ez nuke esango bere izaera asko aldatu duenik.

Zenbat lagun pasa diren jakitea zaila izango da. Zein da egungo egoera?

Gaur egun 300 dantzari daudela esan dezaket. Hiru urtetik hasi eta adin mugarik ez dago. Guraso ez osatutako talde bat ere badago. 35 urte hauetan, bere gorabeherak ere izan ditu. Lehen urteetan oso goran egon zen eta gero urte

batzuetan erdi desagertuta egon bazen ere, berriro gorako bidea hartu zuen. Emanaldi asko ari gara eskaintzen eta dantzarien maila ere oso altua dugu. Azpiegiturak ere aldatuta ditugu. Irakasle boluntarioez gain, gaur egun, bi irakasle profesional ditugu eta maila ere altuagoa dugu.

Dantza talde askok mutilik falta izaten dituzte. Zuen kasuan?

Guk ere arazo hori izan dugu baina azken hiruzpalau urteak oso ongi daramatzagu. Zorte handia izan dugu inguruko herrietatik asko gerturatu zaizkigulako. Momentu honetan ez dugu arazorik.



Beaute

Laser Promozioak
Azaroaren 1etik 15era

Anka osoa abonua 5 sesio:

1.250€

Besape abonua 5 sesio:

195€

SHUYANA
ESTETIKA

ESTETIKA: Eskolapioetako
Lorategiak 3, 1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA:
Korreo 1. T. 943 671 488

Karlos Besanceren amari ez diote aurrez aurrekoa egiten utzi

79 urte dituen Ramoni Zugastiri ez zion utzi sartzen espetxezain buruak «nortasun agiria iraugita zuelako»

Erredakzioa Amasa-Villabona

Herenegun Karlos Besance preso billabonatarriaren lehenengo bisita egitera joan ziren familiakoak. Bere ama Ramoni Zugasti eta anai-arrebek aurrez aurrekoa hartzuta zuten, baina Zugastiri ez zioten sartzen utzi, «nortasun agiria iraugita zeukalako», Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak azaldu duenez.

Ramoni Zugastik 79 urte ditu eta erori baten ondorioz, erreha-

bilitazio prozesu batean dago. Ate nagusian zeuden funtzionarioek sartzearen alde egin bazuten ere, Famili Liburuak euren arteko harremana akreditatzen zuelakoan, bertan zegoen espetxezain buruak ezetz borobila esan zion. Villabonako AAMk gogor salatu du «eskubide urraketa berri hau. Ramonik 900 kilometro egin zituen bere semea ikusi ahal izateko eta ez zuen lortu».

AAMk azaldu duenez, «argi dago estatu espainola dela hemen tregoa ez dagoen bakarra. Eta alde bakarreko distentsioek nekez laguntzen dute herri honek bizi duen gatazka politikoa gainditzeko». «Mendekua eta xantaitan oinarritutako espetxe politikak martxan jarraitzen du», gaineratu du.

Ekitaldi ugari izango dira gaur San Martin eguna dela eta

Amezketan, Alkizan eta Amasan ospatuko dute gaurko eguna; Amasan San Martin jaiak ere ari dira ospatzen, hala ere

Erredakzioa

Alkizan, Amasan eta Amezketan San Martin eguna ospatuko dute gaur. Amasan San Martin jaiak ere badituzte, hala ere, eta beraz, ekitaldi ugari izango dituzte igandea bitarte. Atzokoan, esate baterako, Gazteen Eguna zela eta gosaria, bazkaria eta soka-dantza izan zituzten. Hilaren 21ean Mendiatloia ere egingo dute.

• tolosaldean@hitza.info



Amasan Gazte Eguna izan zuten atzo, San Martin jaien baitan. E. MAIZ

↓ Egitarauak

AMEZKETA

Gaur, Umeen Eguna

■ **11:00.** Meza San Martin Ermitan.

■ **Ondoren.** Bixente Gorostidi eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak eta Laja eta Landa-kanda trikitilariak.

■ **13:30.** Umeentzako bazkaria jangelan.

■ **Ondoren.** Puzgarriak eta merienda izango dira Larrunari pilotalekuan.

■ **14:00.** Bazkaria Errekalden.

ALKIZA

Gaur

■ **17:00.** Pailazoaren emanaldia: *Pantxika, Txinparta ederra zailaparta.* Jarraian txokolatada denentzat.

■ **20:00.** *Piano bat bertsotan* izeneko emanaldia eskainiko dute Kultur Etxean. Ikuskizuneari Ainhoa Ansa, Jagoba Astia-

zaran eta Beñat Gaztelumendi bertsolari eta pianistak hartuko dute parte.

AMASA

Gaur

■ **10:30.** Meza nagusia.

■ **Ondoren.** Herri kirolak: Joseba Otaegi eta Jexux Mari aizkolari eta Airmar Irigoien eta J.R. Iruretagoiena *Izeta* harri-jasotzaileen eskutik. Saioa alaitzeko Etxeberria eta Lazkano bertsolariak eta trikitilariak izango dira.

Bihar

■ **17:30.** Hipo eta Tomax pailazoaren emanaldia.

■ **Ondoren.** Txokolatero beroa banatuko dute.

■ **20:00.** Amasako XIX. Bakailao lehiaketa egingo dute frontoian.

■ **23:30.** Dantzaldia Laiotz taldearen eskutik.

Etzi, larunbata

■ **11:00.** Umeen krosa izango da (6. mailara arteko umeentzat bakarrik).

■ **Ondoren.** Dultzaineroak.

■ **14:00.** Herri bazkaria: txekor jatea.

■ **17:30.** Trikipoteoa.

■ **22:30.** Bertso saioa: Uxue Alberdi, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi eta Julio SotoGai jartzailea: Amaia Agirre.

■ **Ondoren.** Dantzaldia Kantuki taldearekin.

Etzidamu, igandea

■ **Meza ondoren.** Zaldi proba.

■ **18:00.** Herri kirolak: Amasarrak zizurkildarren aurka.

■ **Ondoren.** Martina sorginari agurra, XXI. Intxorren aldatzea eta afari-merienda Kultur Etxeko areto nagusian.

Azaroak 21, igandea

■ **11:00.** Amasako XVIII. Mendiatloia.

→ Laburrak

Makrobiotika saioa egingo dute astelehenean

ANOETA Astelehenean, hilak 15, 19:00etan makrobiotika saioa izango da Kuku Elkartearen. Izena emateko azken eguna bihar izango da eta udaletxean edo Kuku Elkartearen egin ahal da. Lehen saio hau teoriko-praktikoa izango da eta afaria prestatzen duten bitartean makrobiotikaren filosofiaz hitz egingo dute. Afaldu ondoren, solasaldi-txoa ere egingo dute. Saioetara joateko 12 euro ordaindu behar zaizkio irakasleari.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Ibarren emakumea behar da, umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 608 32 19 65.

■ **Zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Etxebizitza.** 96 m2 dituen etxebizitza ederra. 150 m2-ko ataria eta 55 m2-ko bordarekin. Bordak argia, ura eta bainugela ditu, eta txoko bezala jarri edo ospakizun egiteko erabili daiteke. Tolosatik 5 minutura dago, izugarriko ingurunean

kokatua. Prezio berezia, jabearekin zuzenean. Interesatuak dei dezatela 670 20 52 99 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Lizartzen. Lehen solairua eta behea. Bakoitza 115 metro karratuko da. Etxearen atzealdean belardia eta borda ditu, 74 m2. Interesa duenak dei dezatela 699 97 26 99 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

■ **Ezkontza-eraztuna.** Villabonako Udaltzaingoen bulegoan ezkontza-eraztun bat utzi zuten iragan ostiralean, Etxe Ondo auzoan aurkitua. Galdu duena joan dadila Udaltzaingoen bulegora, astelehenetik ostiralera.

TOLOSA 2010

X. MUS TXAPELKETA AZKARRA

Azaroak
13
Larunbata

FRONTON KAFETEGIA
LEKUR
BEOTIBAR PILOTA-LEKUR

Ordua
16:30

SARIAK

1. - 1.200€ + Txapelak + Garaikurrak
2. - 600€ + Garaikurrak
3. - 300€
4. - 150€
5. - 100€
6. - 100€
7. - 100€
8. - 100€

- Jokuak 4 erregetara, 6 hamarreko 3 ustelera.
- Bikote bakoitzaren ordainketa : 30€ Fronton kafetegian
- Epaien erabakia mugigaitza izango da.
- Aldez aurretik

posta elektronikoa : fronton@jeub.org
tel.: 943 65 14 70

Txapeladunak
2011ko
premundialera
gonbidatuak
izango dira

Paulo Iztueta ◉ Idazlea

Hezkuntzaren soziologia Iztuetaren kezketako bat izan da, hala, Euskal Kurrikuluma kontzeptuaren inguruan hainbat ikerketa eta tesi egin ostean, praktikara eman nahi ditu hauek bere sorteriarekin

«Euskal Kurrikuluma barrutik, erreproduzitzea dut helburu»

Esti Ezeiza Berastegi

Paulo Iztueta, soziologo, historialari eta filosofoak *Berastegi iraganetik gaur egunera* bilduma aurkeztuko du larunbatean, Kultur Astearen baitan. 17.00etan, Eskolako ganbaran izango da hau. Hamar urtera arte bizitu zen Iztueta Berastegin, baina bizitza osoan oso barnean eraman du sorteria. Egun, Donostian bizi da, baina bere esanetan, bihotza Berastegin du. Horregatik, orain, jubilatutuan ostean, bere gogoetek hara itzularazi dute, eta bere nahietako bat betetzen lagundu. Hau da, horrenbeste urtetan landutako teoriak praktikara eramatea.

Nondik sortu zitzaizun bildumako hiru liburu hauek idazteko ideia?

Ni irakasle izan nintzen urte askoan, Hizkuntza Zientzietan, Pedagogiako fakultatean, eta jubilatzean, semeek esan zidaten, bazela garaia nire gogoetak eta oroitzapenak biltzeko. Hori eskatu zidaten, eta zerbait egitea pentsatu nuen. Hau ez zegoen nire asmoen artean, beste mila gauza bainezuzkan egiteko, baina eskaera etxetik eta hurbiletik zetorrenez, amore ematea erabaki nuen. **Zure gogoeta horietatik abiatuta,**



ESTI EZEIZA

segituan Berastegira iritsi zinelan esan daiteke.

Gogoetak egiten hasi nintzenez, segituan, nire sorterrira, eraman ninduten. Honela, handik eta hemendik, oroitzapenetatik eta abar, materiala biltzen hasi nintzen, eta informazio asko lortu nuen. Honela, ohartu nintzen, horrenbeste gogoeta, gai, material eta informazio ikustean, honek

gainditu egiten ninduela. Izan ere, nire haurtzaroak izugarriko dimentsioa hartzen zuela konturatu nintzen, eta dena sorterrira ingurukoa zela. Horregatik, banekien, horrela jarraituz gero, ez zuela amaierarik izango.

Horrenbeste informazio aurkitzean, bidea aldatu, eta zure sorteriaren inguruko lan bat egitea erabaki zenuen. Baina ez liburu historiko bat.

Materiala biltzean, eta nire erakuntza teorikoa egiten hastean, garbi nuen, ez nuela ohiko lan bat egin nahi. Izan ere, beste hainbat herriri buruz, enkarguz eginda, lan ugari daude, baina hauek, ikuspegi lineal bat jarraitzen dute.

Hezkuntzarekin izan duzun loturak, pisu handia du lan honetan.

Nire ia betiko kezka izan da hez-

kuntza. Unibertsitatean eskolak eman ditut eta ikerketak burutu ditut, hezkuntzaren soziologiaz. Hau maila teorikoa hainbatetan landu dut, eta argitaratu ere bai, Euskal Kurrikuluma liburuan. Zuzendu ditudan Doktore Tesietan ere gai espezifiko horren inguruko materiala ere banuen. Horregatik, Euskal Kurrikuluma kulturaren, hizkuntzaren, historiarena eta testuinguruaren gainean egindako tesiak dira. Bestalde, gai hau oso eztabaidatua izan zen, eta jada, Kurrikulumaren euskal dimentsiotik, Euskal Kurrikuluma arteko urratsa emana genuenez, oraindik ere hor nuen egarri bat asetu nahi izan nuen. Hau da, Euskal Kurrikulum kontzeptu horri gorputza ematea. Kontzeptu abstraktu bat izan arren, Euskal Herriari egiten baitio erreferentzia. Honela, edozein ikastetxetan, erabili dezaketen material bat sortzea otu zitaidan.

Beraz, Berastegitik abiatuta, inguruko historia ezagutzeko aukera emango du honek.

Euskal Kurrikuluma testuinguru partikularretik unibertsalera joan daiteke. Halaber, nire testuinguru partikularra Berastegi

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com

denez, hurbilena hori egiten zizaidanez, Euskal Kurrikuluma jantzeko hau erabili dut. Gainera, herri gehienek dute ikastetxea, eta testu hauek ereduagarri izan daitezke, herri bakoitzeko materiala osatzeko.

Beraz, Unibertsitatean maila teorikoan landutakoa, orain praktikara eramandu.

Unibertsalera joan aurretik, bakoitzak bere testuinguru hurbila ezagutu behar du. Edozein herri-tan daude, unibertsalak diren elementuak (geografia, ekonomia, hizkuntza, kultura...), eta edozein herri mikrokosmos bat da. Euskal Herriak bere osotasunean, bere espezifikotasuna duen bezala, baditu bereizgarriak ere. Mikropartikularitasunak daude, eta hauek abiatu behar da, unibertsaltasunera iristeko. Orain arte, hezkuntzan, gauzak irakasteko garaiak, unibertsaltasunetik abiatzen gara, amaieran, partikularrera iristeko, baina nik alderantziz egin behar dela diot. Hastapena, herria, partikularra izan behar du. Azken batean, planteamendu teoriko hori dago lan guzti honen atzean.

Zuk egindako lan hau, aitzindari dela esan daiteke beraz?

Nik dakidala, horrelako beste lanik ez da egin Euskal Herrian. Eredu hau beste norbaitek jarraituko balu, izugarritzko artxiboa eratuko genuke Euskal Kurrikulugaren inguruan. Egun dauzkagun testu ia denak, Espainiatik datoz, eta hori erreproduzitzen da. Baina, nire helburua da, Euskal Kurrikuluma barrutik, gure baitatik erreproduzitzea.

Egungo hezkuntza sistamarako eredu berrizaila da.

Ez da ohikoa, ez baita lineala, beste helburu batzuk ditu. Behar bada informazioari dagokionean, ez dago berritasunik, baina bai, gauzak kontatzeko moduan. Guri umetan, gure herriaren historia ez ziguten erakutsi, baina bai, esaterako, buruz ikasgarri, Espainiako ibaiak. Nire helburua da, guk pairatu dugun hezkuntza eredu hori, ondorengoek ez jasan behar izatea.

Hiru liburutan zatitu duzu lana. Zeren arabera egin duzu banaketa?

Material asko nuen, eta hau egituratzeko, lan asko egin behar izan dut, horrelako eredurik ez bainuen. Hala, soziologoa naizenez, eta bereziki, hezkuntzaren soziologian aritu naizenez, nire aurreko lan eta marko teorikoetan oinarritzea erabaki dut. Honenbestez, konturatu nintzen, gizarte bizitzan sartzen diren elementu nagusiak kontzeptu gutxitan laburbil daitezkeela. Horregatik, hiru kontzeptu dira lanaren zutabeak, eta hauen gainean eraiki dut diskurtso guztia: hiritartzea, gatazka eta eraldakuntza.

Lehendabiziko liburuari 'Hiritartzearen bidetik' jarri diozu izenburu.

Gizabanakoa, sortzen denetik, gizarteararen gorpullean sartzen da. Horregatik, gu, gure inguru guz-



E. EZEIZA

tiarekin, eraikita dagoen gizarte batean jaiotzen gara. Honekin lotuta, egin ohi ditugun galderak dira: ea nola sortu den gure herria, zergatik dagoen horrela antolatua... Azken batean, herri bakoitzak bere historia du, eta baita aurrehistoria ere. Berastegi nola jaiotzen den, Gaztelako erresuman sartzea, mugako herria izatearen ondorioak... kontatzen ditut. Hasteko deskribapen fisiko bat egiten dut, gero bere historia kontatu eta landa arkitekturaren gida ere egiten dut, baita eraikinak izendatu ere.

Bigarrenean berriz, gatazkak hartu dituzu ardatz.

Nire teori eta ikuspegitik dator hau. Honen arabera, gizartearen

«Herri gehienek dute ikastetxea eta testu hauek ereduagarri izan daitezke hauetan»

«Hiru kontzeptu dira lanaren zutabeak: hiritartasuna, gatazka eta eraldaketa»

egiakzko eta eguneroko funtzioan, nagusitzen den, giza faktorea edo elementua gatazka da. Arauen artean hezi gaituzte, eta haueta-rik ateratzen dena, baztertu egiten da. Harremanetan, oro har, zapaltzaileak eta zapalduak daude. Etengabeko tentsioan, eta gatazkan bizi gara, hala, gizartegin-tzaren egitekoa da, garaiak garai-ko gatazka egoerak leuntzen eta gaingaitzen joatea. Nahiz eta jakin, bat gaindituz gero, beste bat etorriko dela. Hemen, jauntxo eta herritarren arteko gatazkek, auziak, gudak, diktadurak sortuta-koak... kontatzen ditut. Zati handiena, Berastegiko jauntxoaren ingurukoa da, hau oso garrantzi-tsuak izan baitzen, eta herriaren gidaritza hainbat urtetan zuzen-du zuten.

Azkenekoan, berriz, eraldaketaz mintzatzen zara.

Oinarritzko ideia da, eraldakuntzarena. Pertsona bat, ume denetik, heltzen denera, aldatu egiten da, eta testuinguruaren arabera ezberdina da. Era berean, Berastegi, mendeetan zehar, eraldatuz joan da, nahita edo nahigabe. Be-

rastegi, kontzeptu bezala XI. mendean jaiotzen da, eta honek bi esparru ditu, Leitzarango arana bata, eta bestea, Uzturre mendira bitarteko beste arana. Eraldaketaren bidean, 1940-50era bitartean, Erdi Aroko herria zela esan zitekeen, pentsakeraz, egituraz, morfologiaz... Baina, 1960ko hamarkadan aldaketa eman zen, nekazal herria zen, eta orduan, mekanizazioa etorri zen, industrializazioa, eta figura berri bat sortzen da, baserriar fabrikante-arena. Baserriari eusten zaio baina fabrikari ere egiten da lana. Eredu hori ere gainditu da, eta azken fasean sartu da, non azken hamarkadan, oso gutxi diren baserriar bizi direnak.

Historian zehar, noiz eman da eraldaketarik handiena, eta zein da garairik erabakiorrena Berastegirentzat?

Faktore asko egon dira, baina soziologia aldetik, gehien markatu duen gizarte faktorea, kulturaliki nahiz ekonomikoki, komunikabi-dena sorrerarena izan da. Leitzarango araneko lurrak, egun baso direnak, oso emankorrak izan ziren garai batean, eta artzaintzak izugarritzko garrantzia zuten. Jende gehienak ez baldin badaki ere, inguru hauetan, hasieran, artzaintza eman zen, gero, jauntxo-aren garaietan, abeltzaintza, eta ondoren burdin eta brontze meazu-zen inguruan, industria sortu zen. Leizaran, bizibide izan zen. Honen inguruan, XVIII. mendean, komunikazio sare bat sortu zen, trenbidea, eta izugarritzko al-daketa izan zen. Ordura arte, gar-raioa gurdidibez egiten zen. XIX-XX. mendean autoak etorri ziren, eta trenbideari asko kendu zioten. Baina komunikabideek orokorrean suposatu zuten eraldaketa. 1920 aldera egin zuten erpeidea.

Horrelako lan bat egiteko bertako sentitu behar da?

Liburu honen atzean, nire pentsamendua ikusi daiteke, eta nire iritzia. Horregatik, horrelako lan bat egiteko, hasteko zure burua aurkitu beharra daukazu, eta zure diskurtsoa zeren gainean dagoen oinarritua jakin. Ondoren, jasotzen duzun informazioa, galbahe horretatik pasa ahal izateko. Orduan, ia zure nortasuna agertzen duzu.

Udaberri berririk ez guretzat



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Iritsi da ziurrenik urteko urtarorik tristeena: udazkena. Bizidunentzako prestaketa-urtaroa da udazkena, urtaro hau aprobetxatzen dute negurako prestatzeko. Badira ordea bizidun batzuk prestaketa hauek modu oso egokian egiten dituztenak eta ez naiz ari marmota edo piriniotako hartzari buruz, hain ezagunak zaizkigun hosto galkorreko zuhaitzei buruz baizik, ala nola, haritzak, gaztainondoak, pagoak...

Orokorrean esanda, neguak bi gauza ekartzen baititu zuhaitz hauek: hotza eta iluntasuna.

Denok dakigun moduan, tenperatura jaistean hotza jasaten dugu. Hotz handiak, izotza sortzen du eta ez dago izotzea baino gauza okerragorik zuhaitz baten-tzako (eta edozein bizidunentzako).

Izan ere, zuhaitzaren barnean dagoen ura izoztu egiten da, izotz kristalak sortuz eta labana zo-rratzak biltzen, landarearen elikadurarako hodiak (gure arte-rien parekoak) barrutik ebakit-zen dituzte. Zer esanik ez hau erabat kaltegarria dela landare-arentzat, ezin baitu elikagai eta bestelakorik bere gorputzean gar-raiatu.

Argi orduak gutxitzeak berriz, iluntasuna ekartzen du. Eta Ilun-tasunak, 'gosea' ekartzen diete. Zuhaitzek eguzki argia behar dute elikagaiak lortzeko energi iturri moduan, eta behar adina argirik ez badute jasotzen, ener-giarik gabe hil egiten dira.

Biarrisku hilgarri hauek ekiditeko, udazkenean, zuhaitzak hainbat barne jardura egingo ditu eta nolabaiteko lozorroan sartuko da udazken eta negu osoa pasa arte.

Baina, lehenik eta behin udaz-kena datorrela ohartu behar dute, honetarako, hosto azpiko argi hartzailak batzuk erabiltzen dituzte, hartzailak hauek argi-or-duen iraupen gutxipena nabariz-tzean, izoztea eta iluntasuna eki-diteko mekanismoak ipintzen di-tuzte martxan.

Izoztea ekiditeko, zuhaitza ura galtzen hasten da, zenbat eta ur gutxiago eduki, barne izozketa pairatzea zailagoa izango baita (sagar bat izoztu egiten da, ga-kahuetek bat ez) eta neguko 'go-sea' jasateko berriz, azukreak eta

bestelako elikagaiak metatuko ditu bere barnean. Guzti hau prestatzen duenean, lozorroari ekingo dio, bere aktibitatea mini-mora jaisten du (Pirineoetako hartz batek neguan bezala), honela erreserbak aurreztuko ditu.

Garai honetan hostoak bota egingo ditu, erreserbei esker ez baitu dagoen argia apurra behar, beraz ez du zentzurik hostoak mantentzen energia gastatzea. Baina hostoa bota aurretik hosto barneko elikagai oro bixurgatu egingo ditu (hosto berdeak hori-tu egingo dira) elikagaiak alfe-rrik ez galtzeko.

Garai hau da egokiena egurra atsegin dugunontzat zuhaitz adarrak moztu eta lehortzeko, izan ere zuhaitzen enborretan barrena ez baitago ia zapa edo izer-dirik, gainera ur gutxi dauka me-tatuta, honek lehortzeko egur egokia egiten du, makilak sendo-agoak irtetzen dira eta sutarako egurra ere hobea da.

Behin negua pasatzen denean, tenperaturak gorantz egitean eta argi-orduak luzatzean, zuhaitz hauek berpiztu egingo dira. Bai-na nahiko ohikoa da gure latitu-deetan, neguaren erdian ere uda-berriko giroa egitea eta zuhaitzak berpiztea udaberria etorri dela-koan, hau, 'udaberri faltsua' da, negu erdia gaudenez normalena da hurrengo egunetan berriro izotz arriskua egotea. Zuhaitza garairik okerrean berpiztu da.

Arazo hau ekiditeko, zuhaitzek nolabaiteko 'memoria' dute. Nahiz eta negu erdian bero egin eta argia egon (udaberriko giro tipiko bat), zuhaitzak ez baditu behar adina hotz egun igaro (edo 'kontatu'), ez da lozorrotik irten-go.

Hotz egun konkretu batzuk igarotzen direnean ordea (zuhaitz espezie bakoitzak bere-ak ditu) neguak eman beharreko-ak eman dituela esan nahi du eta udaberria datorrela, hemen ber-piztuko da zuhaitza loreak ema-nez eta 'udaberri faltsuaren' ara-zoa ekidinez.

Beraz, zuhaitzak loratzeko be-harrezkoa da zuhaitzak hotz den-bora bat igarotzea, nolabait, zuhaitza udaberria dela 'konben-tzitzen' denean ematen ditu lore-ak. Zuhaitzak ez dira ematen dute bezain aspergarriak, ezta?

Astero errepikatzen duden be-zala, zutabe hau eta aurrekoak gustatu bazaizkizue, kritikatu nahi badituzue edo bestelako iradokizunik egin nahi baduzue, idatzi lasai zuzenbide berri hone-tara: bioaniztasunetik@hotmail.com edo neure blog-era <http://bioaniztasunetik.blogspot.com>. Zuen iritzia oro kontutan hartuak izango dira.



14°
11°

GOIZA	ZERUARGIA
ARRATSALDEA	ZERUARGIA
BEROENA	16°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info. **Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info. **Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeak, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Auzotarrek euren iritzia eman dezaten panelak jarri dituzte Amarotzen. HITZA

Auzotarren artean etorkizuna eraikitzen

Amarotz auzoko sarrera-irteeren inguruan galdeketa egiten ari da Auzo Elkarteak

Erredakzioa Tolosa

Beste hainbatetan egin duten bezala, Amarozko Auzo Elkarteak herriarren partaidetzarako espazio berri bat ireki du. Kasu honetan, auzoko sarrera eta irteerei buruz eman beharko dute iritzia amaroztarrek.

Auzotarrek hartu zuten erabaki batean oinarrituta, proiektu bat egin zuten Amarotz eta Tolosako hirigunearen arteko trafikoa eta oinezkoen bidea hobetzeko, eta horren arabera, egun dituen sarrera-irteerak aldatu egingo lirarteke.

Foru Diputazioak, baina, «arrazoi teknikoak tarteko», proiektu hartan aldaketa batzuk egin ditu, eta Udalak berak ere egon daitezkeen aukerak planteatu ditu. Hain zuzen ere, aukera horiek dira, Amarozko Auzo Elkarteak bizilagunen artean kontsultatu-ko dituenak.

Helburu horrekin bi panel informatibo jarriko dituzte kalean, eta auzotarrek euren iritzia eman ahal izango dute bertan. Ekarpenak jasotzen dituztenean, gehien-goaren iritzia baieztatzeko bilera egingo dute, eta ondoren Udalari jakinaraziko diote emaitza. Elkartekoekin iritzi, «auzoko sarrerak eta irteerak hobetzeak garrantzi handia badu ere, pareko garrantzia du auzotarren parte hartzeak, eta horregatik da funtsezkoa arduraz jokatu eta implikatzea auzoaren etorkizunean eragin handia izango duelako».

• tolosa@hitza.info

LAGUN ARO GBC
Bizkaia Bilbao Basket

saskibalo partida

Azaroak 12 • Ostirala • 20:30etan • Donostiako Ilunben

Gaitzaundi Euskara Taldeak antolatutako **Afari Txoua**

Azaroak 12 • Ostirala • 21:00etan • Tolosako lurre elkartean

sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareta du

HITZAK harpidedun batentzat sarrera pareta du

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

Agenda

FESTA

■ **Anoeta.** Loatzoren Xexili festa 09:30etik aurrera. Alegia, Altzo, Ibarra, Aduna, Irura, Amasa-Villabona, Zizurkil eta Anoetako ikasle, guraso eta herritarrek hartuko dute parte. 10:15ean, ongietorri ekitaldia eta lautik zortzi urte bitarteko ikasleentzat tailerrak eta jolasak. Ordu berean, musika herriko txokotan. 11:30ean, tailerreko ikasle-emanaldia. 12:00etan, Dantza Gunea plazan. 13:00etan, ikasleen kontzertua eta jarraian batukada. 14:00etan bazkaria eta 17:30ean Kantuki taldearen erromeria.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** Atsedena taldea Inauterien prestaketekin hasi da. Hori dela eta taldean parte hartu nahi dutenei izena emateko eskatu dute bi telefono zen-

baki hauetara deituz: 679-87 05 08 edo 635-74 64 47. Izena emateko azken eguna.

■ **Tolosa.** Abenduaren 4tik 8ra izango den Txuletaren Festarako txartelak eskuratu daitezke jada. Bazkariak abenduaren 5, 6 eta 8an izango dira eta afariak, berri, 4ean eta 7an. 45 euro baliok dute txartelak eta 943 69 74 13 telefono zenbakira deituta edota tour@tolosaldea.net helbidera mezu bat idatzita eskuratu daitezke.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24 arte egiten diren erosketengatik 3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g
TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30